

7. GAIA CURRICULUM DISEINUA
- Helburu orokorrak.
 - Natur Zientzien edukien analisia eta zikloz ziklo analisia.
 - Orientabide didaktikoak.
 - Ebaluazio irizpideak.
 - Ingurunearen Ezaguera arloaren Oinarrizko Curriculum Diseinuaren balorazioa eta kritika.

7.1 Arloaren funtsa epistemologikoa eta ezaugarriak, helburu orokorrak, edukiak eta orientabide didaktikoak

Aldez aurretiko ezaguerak eta aurrerabidea ikasketan blokearen sintesia egin ondoren, ondorioak proposatu eta iruzkin kritikoa egin ezazu.

O.C.D.-ak dioenez ikasleak ingurunearekin harremanetan dagoenez esplikatzeko eta interpretatzeko saiatzen denez, ikaskuntza sendoa egiten dugu eta, aurre ideiak edo aurre ezaguerak ez datoz bat zientziaren ikuspegitik. Ikuspegi filosofikotik O.C.D.-ak proposatzen duen "egia zientifikoa" espresioa eztabaidatu eta argitu beharko litzateke.

Ondorioz O.C.D.-ak dio aurre ideiek balio eta esanahi handi eta sakona dute ikasleentzat, zeren ikaste prozesua ez dela hutsetik abiatzen, hasierako ezaguera batzuetatik baizik, denboran zehar progresiboki aldatu beharko direnak: erroreak, zehatz gabetasunak, ideia okerrak..., progresiboki errealitatearen ezagupen zehatzago eta objektiboagoa hurbiltzeko. O.C.D.-an kritikagarriak dira aldatu eta objektiboagoa terminoak, zeren ideiak eboluzionatu behar dira eta honek ez du erabateko eta berehalako aldaketa ondorioztatu behar. Eguneroko testuinguruak bere helburuak ditu eta testuinguru zientifikoak beste batzuek; eskolako testuinguruak bereizi behar dira eskolako zientzia erakiz. Ideia zientifikoak beti dira subjektiboak. Behaketak eta deskripzioak objektibotasunez egiten badira ere, honek ideia zientifikoaren objektibotasuna ez du ondorioztatzen. Zientzia ez da erabat objektiboa.

O.C.D.-ak metodoa proposatzen du: "lehendabizi, ikasleak bere hasierako ikusmolde eta ideiak zein diren jabetu beharko du, gero, beraiek adierazi eta gogoan erabil ditzan; hartara, ideia horietan oker, huts eta erroreak daudela oharturik, aldatu eta berrizatu behar direla konturatu da, pixkanaka-pixkanaka; bigarrenik, ezaguera berriak hurbiltzea, ikaslearen eguneroko munduarekin lotuz. Horrela, ikaslearen hasierako ideiak eta pentsaera aldatuz joango dira, ideia osoagoak eta errealitatearekin hobeto egokitzen diren lerratarak". O.C.D.-aren ikuspegia erabatekoa da, "aldatu", "egokitu", "ikaslearen ideiak erroreak dira", "egia zientifikoa" terminoak erabiltzen direlarik. Hain ikuspegi gogorra eta hertsia izatea ez da oso aproposa. Ikaslearen ideiak ez dira erroreak zeren bestela guztion eguneroko hizkuntza espresioak izango lirateke eta hori ez da horrela. Zientziak ez ditu egiak proposatzen, onartu egiten ditu komunitate zientifikoak zientzian proposatzen dituen interpretazio zientifikoak. Ikasleek ideia zientifikoetara hurbildu behar dute, zientzia eginez zientzia ikasiz, beti kontzienteki eguneroko kontzeptu eta espresioetatik bereiziz.

O.C.D.-ak hiru ideia egoki ere proposatzen ditu:

- Aurre ideiak sendoki ezagutzen dituzte ikasleek (ongi ikasi eta erabiltzen dituzte),
- bestalde jardueretan gertuko testuinguruko adibideak erabili behar dira zeren horrela aurre ideiak eta eskolako ideia zientifikoak bereiziko dituztelako.
- Ikasleriaren aniztasuna kontutan eduki behar da: aurre ideien aniztasuna. Honek irakaskuntzaren planifikazioa eta praktika konplexuagotzen du.

Motibazioa eta ikasketen balioa blokearen sintesia egin ondoren, ondorioak proposatu eta iruzkin kritikoa egin ezazu.

O.C.D.-ak motibazioaren garrantzia aipatzen du, honetarako bi arrazoi proposatzen dituelarik: ikaskuntzen funtzionaltasuna eta eguneroko bizitzako arazoak ebazteko baliagarritasuna alderdi positibo bezala. Arrazoi hauek proposatzen dituen iradokizunekin erlazionatzen ditu: "komenigarri dirudi haurrak bere inguru hurbilean, bere habitak natural eta sozialak, jarduera-eremua eta esanahien testuinguru horretan burutzen dituen behaketak, ohartarazitako egitateak eta dituen bizipen-espereziak irakaskuntzaren abiapuntutzat hartzea. Esate baterako, bere gorputzari buruzko ezaguerak edota errepede zein trenbide mapa bat ulertzeak bidaia bat antolatzekeko laguntza handia izan daitekeela egiaztatzen duenean, ... ikasteko nahia eta jakin-mina". Implizitoki dago aktibotasunak eta gertuko testuinguruaren erabilerak suposatzen duen motibazioa.

Bloke honek oso ideia orokor eta ebidentek proposatzen ditu. Gelako lanari buruz ez du ekarpen zehatzik egiten.

Irakaslearen eginkizuna blokearen sintesia egin ondoren, ondorioak proposatu eta iruzkin kritikoa egin ezazu

Aipatzen dituen funtsezko ideia aipagarriak hauek dira:

- Eredu didaktiko eraikitzailearen barnean gaude eta hau da kontsideratu behar den eredu.
- Ikaslea ez da bakarrik ezagueren hartzaile hutsa, ezaguera sortzailea da eta hau da ikuspegi nagusia.
- irakaslea, batetik, ikasleari berari eta ikasle horrek egiten duen ikasketa jarduera eraikitzaileari egokitzen ahaleginduko da eta, bestetik, jarduera hori erraztu eta bultzatzen saiatu beharko du.
- Irakasleak ez du beti metodologia bera aukeratu behar.
- Ikasleak errealitateaz jabetuz joan behar du.
- Irakasleak ikaslearen jarduera gidatu behar du, ikaslea informazio iturri desberdinekin harremanetan jarri duelarik.
- Irakaslea bera informazio iturri funtsezkoa da.
- Ikasgelan giro atsegina eta eragingarria sortzen ahalegindu beharko du.

Oso azalpen eta ideia orokor hauetan, O.C.D.-ak ikuspegi ireki eta malgua proposatzen du, bai metodologiak bai baliabideak proposatzerakoan. Eredu eraikitzailea aipatzea eta malgutasun hau aipatzea oso positiboa izan arren testua irakurtzerakoan metodologia eta prozedura terminoen arteko nahastea baitago. Bestalde baliabideak eta prozedurak aipatzerakoan laborategiko materiala eta jarduera esperimentalak eskas samar aipatzen dira. Askotan prozedura eta metodologiaren artean nahasteak sortaraz daitezke.

Behaketa eta esperimendazioa Inguruaren Ezagueraren Arloan blokearen sintesia egin ondoren, ondorioak proposatu eta iruzkin kritikoa egin ezazu

O.C.D.-ak proposatzen dituen ideiak oso kritikagarriak dira:

- Behaketa eta esperimentazioa terminoak nahasten dituzte. Behaketa kontzeptuari gehiegizko garrantzia ematen zaio.
- Ikuspegia oso induktibista eta enpirista da.
- Ikerketaren azalpen desegokia: "arazoaren planeamendua, esperimentua burutzea, emaitzen frogaketa eta eragindako ondorioak, azterturiko propietateak edota ikasitako teoriak egiaztatzea". Lineala, induktibista, zientifista, errealista eta erreduktionista da.
- "Egia behaketatik lortzen da. Ideiak frogatu egiten dira" ideiak erabat baztergarriak dira.
- Prozedurei gehiegizko garrantzia ematen zaie eduki mota guztien garrantzi berbera onartu eta gero. O.C.D.aren azalpenean kontzeptuak eta jarrerazko edukiak bigarren mailan daude.

O.C.D.-ak proposatzen dituen ideia positiboak hauek dira:

- Hiru eduki motek, hau da, kontzeptu, prozedura eta jarrerazko edukiak, garrantzi berbera dute. Hala ere, ideia hauei buruz une batzuetan kontraesanak aurki daitezke.
- Ikasleak bizitzan egindako behaketak eta gertaerak hartu beharko ditugu abiapuntutzat eta esperimentu erraz batzuk burutu.
- Prozedurazko edukien markoaren barruan, Etapa honetan garrantzi handia hartzen dute behaketak eta esperimentazioak.
- Ikerkuntzak, berriz, aberastasun pedagogiko handiko urrats multzo bat behar du.
- Lan tresna eta materialen ardura zein segurtasunari buruzko arau batzuk bete behar dira prozesu horretan. Erabiliko diren materialek ez dute zertan sofistikatua edo laborategikoak izanik, material sinple, ezagun, eguneroko bizitzan erabiltzen direnak eta, askotan, ikasleek beraiek eginikoak baizik.
- Autonomia pertsonalaren garapena bultzatzen da: "Aipatu beharrean gara prozedurazko edukiak lan zientifikoaren oinarriak diren gaitasunak garatu eta aurreratzen dituztela, ikerkuntza, igarpena, araketa, interpretazioa, etab. besteak beste; horrek, gainera, aukera ematen dio ikasleari bere kasa, inoren beharrik gabe alegia, gauzak ikasi ahal izateko".

Hala ere ez dago zehaztapenik edo orientabide bibliografikorik..

Sekuentziario irizpideak blokearen sintesia egin ondoren, ondorioak proposatu eta iruzkin kritikoa egin ezazu.

- ✓ Ez ditu gehiegi zehazten sekuentziario irizpideak, beraz malgutasuna positiboa da, baina lan handia ipintzen du irakasleen eskuetan. Irizpide hauek aipatzen ditu: edukiak logika, psikologia eta denboraren arabera antolatu behar dira edukiak. Ondorioz Natur Zientzietako edukiak ezagutu eta menperatu behar dira, ikasleria ezagutu eta denboraren antolakuntza egin behar da. Proposamena irekia da.
- ✓ Aipatzen dituen funtsezko ideiak orokor samarrak dira, espazioa eta denborari garrantzi gehiegi ematen diolarik.
- ✓ Gizarte gertakarien konplexutasuna ez du aipatzen.
- ✓ Espazioa asko aipatuz ingurune naturalari gertakizun fisikoei baino garrantzi gehiago ematen zio (dagoen ideia inplizitua). Kontutan izan behar dugu bizidunak lantzea oso konplexua izan daiteke, gehienetan kontzeptu fisikoak aurrez ulertu behar direlarik ondoren kontzeptu biologikoak ulertzeko.
- ✓ Teknologia eta Natur Zientzien ikuspegi integratua ez du aipatzen.

Alderdi positiboak hauek dira:

- ✓ Proposatzen dituen sekuentziario irizpideak: espazio/denbora nozioak, kausalitatea, Ingurunearen ezagutzaren garrantzia, ...
- ✓ Espiral itxura duen curriculuma proposatzea eta horrela, aniztasunari ere behar den arreta eskaini behar denaren garrantzia.
- ✓ Irizpide bezala sinple eta zehatza den berezko ezagueratik gero eta kontzeptualago, abstraktuago eta konplexuagoa den beste ezaguera mota bateranzko aurrerapena egitearen egokitasuna.
- ✓ Integrazioa eta oreka landutako eduki mota guztietan.
- ✓ Eduki guztiak sakontasunean lantzea konplexua da. Aukeraketa egokia eta integratua egin behar da: Fisika, kimika, biologia, geologia, astronomia, ekologia,...
- ✓ Zehar lerroak eta zehar eduki moduko antolaketak egin daitezke.
- ✓ Globaltasuna eta diziplinartekotasunaren garrantzia.

7.2 Ingurunearen ezagueraren Lehen Heziketako O.C.D.-aren iruzkin kritikoa.

Berriazko orientabideak blokearen sintesia egin ondoren, ondorioak proposatu eta iruzkin kritikoa egin ezazu

Espazioa eta denbora sakonki tratatzen da, garrantzia handia emanez. Agian honek inplikatzeko duen ikuspegi erreduktionista kritikagarria izan daiteke (gertakizun fisikoei garrantzi urriegia eskaintzea)

Nozio topologikoei garrantzia handiegia eskaintzen zaie. Positiboa da mapa eta maketei garrantzia ematea, baina ikuspegi erreduktionistak beste eduki eta prozesu zientifikoaren garrantziaren gutxiestea ekar dezake. Ikuspegia oso erreduktionista da. Ez da globala.

Kanpoan burutzen diren lanei garrantzia ematea positiboa da. Honek ikaskuntza funtzionala eta erabilgarria izatea jakin-mina eta ikasteko gogoia piztea bultzatzen du; hala ere gelako/laborategiko lana zentrala dela aipatu beharra dago. Bestalde antolakuntza eta segurtasun arauak konplexutasuna ekartzen dute. Oso ideia orokorrak proposatzen ditu.

Zehar lerroak arlo honetan garrantzia izatea aipatzen dute eta, hala denez, aipatzea oso positiboa da. Zehar Lerro hauek arloaren ikuspegi osoak edo globalak izaten laguntzen dute eta, ikaslearen esperientzi esparruan eta bere eguneroko bizitzaren errealtatean sartzen direnez, ikaslearentzat oso esanguratsu eta motibagarriak diren edukiak ditu. Kontsumorako Hezkuntza eta osasunerako hezkuntza luze eta zabal aipatzen dira O.C.D.-an, beste zehar lerroak bigarren planoan uzten direlarik.

Positiboa da O.C.D.-an ebaluaziorako orientabideak proposatzea. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren une guztietan ebaluazioak egon behar duela kontutan izanik (aurre ezaguerak kontutan hartu behar direlarik), ingurune Natural eta Soziala arloak duen jakintzagaia oso da zabala eta anitzak konplexuagoa egiten duela aipatzea, ebaluazio jarraikiak garrantzia duela, eduki mota guztiak ebaluatu behar direla eta ebaluazio tresna edo baliabide ezberdinak erabili behar

direla oso positiboa da. Auto-ebaluazioa, ikaskuntzen auto-erregulazioa eta eredu didaktikoa ez proposatzea dira akats edo alderdi negatibo nabarmenenak.

7.3 Oinarri Curriculum diseinuaren analisia eta balorazioa ariketen bitartez

Ondorengo esaldiak O.C.D.-aren blokeei buruzkoak dira. Blokeak ordenatuta eta banatuta agertzen dira. Bakoitza bananduta dago eta bloke bakoitzeko ideiak zenbakiz izendatu eta ordenaturik agertzen dira. Zuzenak ala okerrak al dira? Erantzuna arrazoitu ezazue.

1. Ingurunea ez dago pertsonen jarduerekin erlazionatuta.
 2. Ingurunea eta ingurua antonimoak dira.
 3. Ingurunea elementuen bilduma da, zeintzuek pertsonen jarduerak ematen diren testuingurua edo testuingurua osatzen dute.
 4. Ingurunea elementu independentez osatuta dago, zeintzuek multzo simplea osatzen baitute.
 5. Inguruneak sistema baten ezaugarriak ditu.
 6. Ingurunearen osagaien artean elkarmenpektasuna dago.
 7. Ingurunean pertsonak diharduten eszenategia baino garrantzitsuago da kontsideratzea pertsona eszenategia horren zati dela eta elkarrekintza iraunkorra eta etengabea dagoela pertsona eta bere eszenategiaren artean.
 8. Ingurunearen izaera amaierakora da, estatikoa eta aldakorra.
 9. Ingurunea natur eraikuntza da, hau da, naturaren produktua.
 10. Inguruneak subjektu edo pertsonarentzat ez da testuinguru esanguratsua.
 11. Ingurunea subjektuarentzat habitat naturala da soilik.
 12. Inguruneak izaera globala du soilik.
 13. Ingurunearen esangura ingurunea bezain zabala da.
 14. Ingurua pertsonari dagokion kontzeptua da, hurbil sumatu eta sentitzen den ingurunea da.
 15. Inguruaren kontzeptua denboran eta espazioan ez dira hedatzen zeren pertsonen pertzepzioa eta jardunetarako gaitasuna ez da aldatzen.
 16. Inguruneak duen osagaia indibiduala, subjektiboa eta esperimentalta da, zeina ezaguna eta bizitua den eta berarekin subjektuak elkarrekintza etengabea ezartzen duen.
 17. Inguruneak bi osagai ditu: bata indibiduala, subjektiboa eta esperimentalta eta bestea objektibotasunez hornituriko osagaia.
 18. Ingurunearen ezagueran osagai naturala eta soziala ditugu.
 19. Irakaskuntzak esanguratsua izan dadin ezaguera esperientziapen eta bizi izandako ezagueretatik abiatu behar da, ondoren espazio eta denboran gero eta zabalago, konplexuago eta urrunagoak diren errealitate natural, sozial eta kulturalaren aspektuak sakondu arte,
 20. Irakaskuntzan ingurunearen ezaguerak gero eta objektiboago, arrazionalago eta konpartituak dira.
1. Ingurugiroa pertsonaren inguruarekin erlazionatuta dago, inguruko eragileek pertsonarengan eragiten dituztelarik, elkarrekintza dinamikoak osatuz.
 2. Ingurugiro Hezkuntzak ingurunearen ezaguerarekin erlazio estua du.
 3. Ingurugiroak ez du gizadiaren existentzia baldintzatu.
 4. Ingurugiro Hezkuntzak Gizarteak Naturaren gainean duen eraginean eta sortzen dituen aldakuntzekin ez du erlaziorik.
 5. Ingurunearen ezagueran paisaia, izaki bizidunak, ingurune fisikoak,...azken finean, ekosistema naturala kontserbatzeko sentiberatasun etiko eta estetikoak garatzea oso garrantzitsua da. Honetaz gain ingurugiro Hezkuntzan ingurunearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan inspiratu behar dituen beste helburu eta balioetarako batzuk badaude.
 6. Ingurugiroaren ezagutza oso eremu zabalean ulertu beharra dago, gizadiarentzat berarentzat garrantzi handikoak diren gaien inguruko jakintzak ezagutuko dituen garapena bultzatuz.
1. Iturri soziologikoak ingurunean existitzen den natura eskolak transmititu behar duela adierazten digu.
 2. Iturri soziologikoak Ingurunearen ezagueran landu behar diren edukien garrantziari buruz ez du ezertxo ere adierazten.
 3. Ingurune Natural eta Sozialaren Ezaguerak, arlo espezifiko bezala kontsideratuz funtsa epistemologiko sendoa du., ingurunea ezaguera-objektu oso zabal eta heterogeneoa delako, zehazki mugaturik ez dagoelako eta haren azterketa, diziplina oso desberdinen ikuspegitik begira daitekeelako.
 4. Ingurunearen ezaguera arloa ez denez ez du metodologia propiorik.
 5. Ingurunearen arloa diziplina ezberdinak osatzen dutela eta, bakoitzak bere ikuspegi partikularren arabera, errealitatearen azterketari dagokionean, haren gorputz kontzeptuala eta, ezaguera zein irakaskuntza-ikaskuntza prozesu propioetara heltzeko bere metodologia zientifiko berezia ematen dute.
 6. Ingurunearen ezaguera osatzen duten diziplinak hauexek dira: Natur Zientziak eta ekologia zientzia integratu bezala. Honetxegatik ingurugiro Hezkuntzaren garrantzia itzela.
 7. Arlo honetan iturri psikologikoak dioenez L.Hko haurrak era globalez hautematen du errealitatea, hau da, era globalez iristen da ingurunearen ezaguerara. Guzti hau oztoppo da eduki konkretu batzuen azterketa objektiboagoa eta analitikoagoa lagunduko duen ikuspegi diziplinatu batetik begiztatu.
 8. Arlo honetan edukiak haurrak errealitateaz dituen datu, ideia eta esperientzietatik abiatuz, ikuspegi globalizatzaileaz aurkeztu behar dira beti.
 9. Arlo honi buruz iturri pedagogikoak ikaskuntza globalizatua errazteko ezaguerak funtzionaltasunaz eta esanguraz hornitu behar dira.
1. Lehen Hezkuntzako Helburuen artean nabarmentzen den bakarra jardueren autonomia, sozializazioa, aktibo eta kritikotasuna, kulturarekiko identifikazioa eta gaitasun komunikatiboen lanketa.
 2. Lehen Hezkuntzako ikasleentzako ingurunearen ezagueraren ekarpen nagusienak, natur zientziekin erlazionatutakoak, autonomia pertsonalaren garapena, higiene eta elikadurarekin erlazionatutakoak, ingurunearen kontserbazioa eta eguneroko existentziak planteatzen dituen arazoei dagokienean, ikerketa, azterketa eta azalpenetarako zein irtenbideen bilaketa sistematikorako gaitasunak.

3. Ingurunearen ezaguerari dagozkion helburu orokorrak gaitasun moduan ez dira formulatzen.
 4. Ingurunearen ezaguerari dagozkion helburu orokorre ez diete prozedurei garrantzirik ematen.
 5. Ingurunearen ezaguerari dagozkion helburu orokorre ez diete balore eta jarrerari garrantzirik ematen.
 6. Ingurunearen ezaguerari dagozkion helburu orokorren artean osasun propioa, portaera konstruktiboa, gizakiaren interbentzioak ingurunean, elkarrekintzen azterketa, segida harremanen ikerketa, ingurunearen elementuen identifikazioa, elementu esanguratsuekin loturiko arazoaren identifikazioa eta planteamendua, objektuen propietateen ezagutza, identifikazioa eta balorazioa besteen artean oso garrantzitsua da.
1. Ingurunearen ezaguerari dagozkion helburu orokorrak lortzearen ez dira kontzeptu, prozedura eta jarrerak hautatzen.
 2. Edukien konjuntzioa eta integrazioa diziplina ezberdinek osatzen dute: Teknologia, Ekologia, Giza Zientziak eta Natur Zientziak.
 3. Zehar lerroek hezkuntza interbentzioa kutsatu behar dute.
 4. Edukiei dagozkien erreferentzi puntuak bi dira, espazio-denbora eta gizabanako-gizartea.
 5. Edukiei dagozkien erreferentzi puntuak bost dira, espazio-denbora, gizabanako-gizartea, ingurune fisiko-soziala, izaki-biziduna izaki - bizigabe eta elementu naturalak giza jarduerak eraldaturiko elementuak.
 6. Aurreko bost erreferentzi puntu horiek hiru esparruetan biltzen dira: Subjektua, Ingurune naturala eta soziala eta elkarrekintzak eta aldakuntzak denboran eta espazioan.
 7. Subjektuan ikaslearen gorputza bere alderdi, morfologiko, organiko eta funtzionala sistema gisa ulertzen da, ematen diren aldaketak eta ohitura osasuntsuak aztertuz eta bultzatuz. Bertan hezkidetzak bakarrik sartzen da zehar lerroen artean.
 8. Ingurune naturalean eta sozialean ingurunearen elementu fisiko eta natural ezberdinak, erliebe geografikoak, materialak, eguraldiak eta flora eta fauna osatzen dituzten sistemen inguruko edukiak hartzen dira. Aldaketa tenporalak eta espazioan gertatzen direnak garrantzi handia dute. Ingurugiro Hezkuntzarekin eta kontsumitzailean Hezkuntzarekin du erlazio estua. Hauetan aldakuntzak ez dira aztertzen.
 9. Orientazio tenporala lantzeko zailtasunak ditu L.H.ko ikasleriak. Denbora neurri bezala eta denbora bere dimentsio historiakoan tratatzen dira, kronologia, kausazko segida eta jarraitasun tenporala, aspektuak bere orientazio tenporalaren gaitasuna gara dezan eta historiaren sarbidean (aspektu diakroniko eta sinkronikoetan) oinarri bat izan dezan.
 10. Ez da tratatzen Ingurunearen Ezagueran espazioa, ingurune sozial eta naturalean ematen diren aldakuntzen eszenategi eta hartzaile gisa. Ez da garrantzitsua ikasleriak ez baititu barnatzen orientazio espaziala garatzeko objektuak espazioan ez eta distantziak eta espazio-denboraren arteko lotura sendoei dagozkien ezaguerak.
 11. Errealitate pertsonal eta ezagunetik abiatu behar da pixkanaka-pixkanaka zabala eta konplexua besarkatuz, espazioan eta denboran urrunago diren etara iritsiz.
 12. Eduki multzoak ez daude gai bat edo multzo tematiko baten inguruan bildutako eduki konektatu eta ordenatuz osatuta.
 13. Eduki multzoak ez dira era integratzaile eta globalez ulertu eta interpretatu behar.
 14. Natur arloari dagozkion bloke tematikoak hauexek dira: Gizakia eta osasuna, Ingurune fisikoa eta gizakiaren ekintza, izaki bizidunak, Lana, energia eta makinak eta Lurra eta gure garaia.
 15. Eduki multzo bakoitzean kontzeptuzko edukiak agertzen dira.
 16. Hiru eduki motak jarduera ezberdinetan landu beharko dira.
 17. Zeharreko ildoak bakar bakarrik kontzeptuekin loturik aurkitzen dira, teknologiari dagozkion gaien antzera.
 18. Arlo honetan ez da bizitako behaketetatik hasi behar ez eta egitate zein fenomenoaren egiaztapenetik, ez baita prozedura eta jarreretara hurbildu behar gero kontzeptuak eta sistema kontzeptualak lantzeko.
 19. Nagusitasuna jarrerazko edukiak dute.
 20. Kontzeptuak prozeduretara iristeko baliabide instrumentalak dira.
 21. Eduki blokeak ez dira gai zerrendak, eta multzoen aurkezpen-ordenak ere ez du suposatzen nahitaez inolako lehentasuna edo sekuentziazioa, zeren eta unitate didaktiko desberdinak programatu eta garatzerakoan, irakasle-taldeak multzo desberdinen edukiak hautatzeko aukera izango baitu, aldi oroz elkar erlazioa eta globalizazioa bideratzen saiatuko delarik.
1. Ingurunearen ezagueran ez dago didaktika eta ebaluaziorako orientabiderik.
 2. Ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan alde aurretiko ezagueretan hauek ideia zientifikoein ez datozela bat aipatzen da.
 3. Ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan alde aurretiko ezagueren esanahia handia eta sakona dela aipatzen da.
 4. Ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan alde aurretiko ezaguerak aipatzerakoan haurren ikaste prozesua ez dela hutsetik abiatzen aipatzen da, hasierako ezagupen batzuetatik baizik, denborarekin aldatu behar ez direnak.
 5. Ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan aurre ideietaz hitz egiterakoan zein diren jakiteko jarduerak diseinatu behar dira abiapuntuztat, ikasleak bere hasierako ikusmoldea eta ideiak zeintzuk diren jabetzeko eta gero hauek adierazi eta gogoan erabil ditzan.
 6. Ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan aurre ideietaz ez da ezaguera berrietara hurbildu behar ikaslearen eguneroko mundua ez baita batere garrantzitsua. Ez dira ikaslearen hasierako ideiak eta pentsaera aldatu behar, ideia erosoagoak eta errealitatearekin hobeto egokitzen diren etara lerratzu.
 1. Ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan aurre ideietaz hitz egiterakoan ikasleak ideiak aldatu nahi dituztela aipatzen da, aldaketa erraza suertatuz. Irakasleak ikasleari ezaguera berriak erakustea funtsezkoa da baina eguneroko bizitzarekin zerikusia duten egoeretan beti ere, eta, era berean, ezagupen berri horiek eta ikasleak lehen zitueneratik oso urrun ez izaten saiatuko da zeren eta, hala balitz, ikaslea nahastu ez ezik haren ikasketaren aurrerabidea oztopaturik gerta bailiteke.
1. Interes eta ikasketa erritmoak ez dira ikasle bakoitzaren berezitasunetara egokitu behar, ikasle guztiei berdin irakatsi behar baitzaie.
 2. Motibazioak eta ikasketen balioa ez da tratatzen ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan.

3. Interesa eta jakin-mina aurre ideiekin erlazionatuta dago. Ikasle motibatu batek arrakastaz ikasten du, ezagueren arteko loturak bilatuz, mezuak berregiten eta interpretazio eskema berriak sortzen.
 4. Ikaslea motibatuzko ingurunearen ezaguerari dagokion ezaguerak zerbaitetarako balio dutela eta balio diotela adierazi behar zaio ikasleari.
 5. Komenigarria da ikasleak bere inguru hurbilean, bere habitat natural eta sozialean, jarduera eremua eta esanahien testuinguru horretan burutzen dituen behaketak, ohartaraziko egiteak eta dituen bizipen-esperientziak irakaskuntzaren abiapuntutzat hartzea.
1. Irakasleak beti metodologia bera aukeratu behar du.
 2. Prozeduren aurretik kontzeptuak landu beharko ditu irakasleak. Behaketa, kokapena, informazioa bilatzea, galdetzea, ikertzea, ondorioak ateratzeak eta abarrek kontzeptuek gabe ez dute zentzurik.
 3. Informazio iturriak ez dira erabili behar.
 4. Ikaslea aztertu, galdetu eta irtenbideak bilatzen saiatzeko jarduerak bultzatzen dituzten metodoak erabiltzeaz gain, beste zenbaitetan, horretarako une egokia denean, arauak eman, ereduak aztertu eta informazioa ongi antolatuz eskaintzean datzan metodologia erabili beharko du irakasleak.
 5. Ingurunearen ezagueran didaktika eta ebaluaziorako orientabideetan prozedurek hartzen duten garrantzia nabarmendu beharrean gaude, zeren eta, ezagutu behar diren gai eta kontzeptuetara iritsi ahal izateko bide nagusia baitira aldi berean; ondorioz errealitatearen zenbait alderdi ikasi ahal izateko halako prozedura bat ezagutu eta erabiltzen jakin beharko da aldeaz aurretik.
 6. Ez ditugu hartu beharreko abiapuntutzat haurrak bizitzan egindako behaketak eta gertaeren egiaztapenak, kontzeptuetara hurbiltzeko ezin baitira erabili esperimendu errazak.
 7. Etapa honetan behaketak eta esperimenduzkoak bigarren planoan kokatzen dira, garatzeko duten zailtasunarengatik.
2. Ikerkuntzak behaketa soila baino aberastasun pedagogiko handiagoa du, bere baitan arazoaren planteamendua, esperimenduaren burutzea, emaitzen frogaketa eta eragindako ondorioak, azterturiko propietateak edota ikasitako teoriak frogatzea.
9. Prozedurazko edukiek lan zientifikoaren oinarriak diren gaitasunak garatu beta aurreratu behar dituzte, ikerkuntza, igarpena, araketa, interpretazioa, ...
1. Oinarrizko curriculum diseinuan sekuentziario irizpideak edukiei buruzkoak dira; funtsezko irizpideak behar dira eta logika, psikologia eta denboraren arabera antolatu eta sailkatu behar dira.
 2. Sekuentziarioan ikasketa instrumentalen testuinguruak garrantzia du.
 3. Edukien sekuentziarioa era ziklikoan egin behar dela aipatzen da O.C.D.an.
 4. Lehen zikloan espazio-denborazko nozio batzuekin hasi behar da.
 5. Beste zikloetan aurrera egin gure inguruarekin, aldaketetaz jabetu, denbora historiakoaren kontzeptua eta gertakizunen jarraipena, kronologiari buruzko nozioak, kausalitatea,... espazio nozioak, hauek progresiboki zabalduz.
 6. Espazio-denborazko eskalak zabaltzea ez da komenigarria.
 7. Ez da egokia giza eta ingurune fisikoaren arteko harremanak aztertzea.
 8. Sekuentziarioa globalizazio printzipioarekin erlazionatuta dago.
 9. Sekuentziario garrantzitsuak dira: ikasleen garapen ebolutiboa, aurre ezagutzak, jakintzagaien logika, eduki moten arteko garrantzia, ardatz-ideiak zehaztea, espiral curriculum antolakuntza hiru zikloetan zehar eta edukien arteko oreka, diziplinartekotasuna.
3. Edukien esanguratasun eta funtzionalitate logiko eta funtzionala oso garrantzitsua da.
1. Espazioaren antolakuntzak garrantzia du (espazioaren orientazioa, gauzak espazioan, gauzak espazioan duten kokapen erlatiboa, distantziak eta neurriak).
 2. Espazioaren ulerkuntza esperientziaren bidez egin behar da, hurbiltasun-urruntasuna, koordenatu horizontalak-bertikalak,...
 3. Zenbait eduki oinarrizkoak dira: espazioaren adierazpena, marrazkiak, planoak, krokisak, kartografia mapak,... adierazteko prozesuan eragile ugariak parte hartzen dute, abiapuntua eta jarraitutako bidea.
 4. Haurrak aldi edo etapa batzuk igarotzen ditu, espazioaren errepresentazio eta orientazioari buruzko bere aurrerapen psikologikoan: egozentrikoak ikonikoak eskalarik gabe direnetik leku berrietara eta ondoren plano euklidearrera; amaieran bolumenaren errepresentazioa planoan.
1. Denbora kontzeptuari dagokionez, bere neurri ezberdinak aditu eta ulertzeko kategoria ezberdinak landu behar dira. Ez dira hauek: eritmoak, orientazioa, uneen kokapen erlatiboa, iraupenak, abiadura, denboraren neurketa.
 2. Egunaren aldiak bereiztu eta gogoratzeak hasi urtaro eta paisaian gertatzen diren aldaketara eboluzionatu behar dute L.H.ko ikasleek.
 3. Oso komenigarria da denbora egunean zehar lantzea baina ez friso historiakoak egitea.
 4. Kanpoan buruturiko lan didaktikoez ez dute ikaskuntza esanguratsua, funtzional eta motibagarriekin inolako erlaziorik.
 5. Landako praktikan ikerketak bultzatu behar direla aipatzen du O.C.D.ak.
 6. Errealitatearen zuzeneko ezaguera, ikaslearen jardueratik eratorritako zenbait gaitasun garatu nahi dira. Aldez aurretik prestatu eta burutzerakoan gida liburuak, datu bilketak, informazioaren jasotzea eta abarrek egin behar dira.
1. Norbanakoaren eta gizartearen osasuna, giza-eskubideak, bakea, kontsumoa, hezkidetzak eta abarrek osatzen dituzte zehar lerroak.
 2. Zehar lerroen bitartez baloreak lantzen dira batik bat.
 3. Hurra pixkanaka analisia eta kritikarako tresnak eskuratu joan dadin gidatu behar da irakaskuntza. Arrazoizko erabakiak egitea garrantzitsua da.
 4. Zehar lerroek arloaren ikuspegi osoak edo globalak izaten laguntzen dute, eta, ikaslearen esperientzia esparruan eta bere eguneroko bizitzaren errealitatean sartzen direnez, ikaslearen oso esanguratsua eta motibagarriak diren edukiak ditu.
1. Ebaluaketak hezkuntza-prozesua neurtu, gidatu eta aldatzeko behar den informazioa ematen digu etengabe.

2. Haurren alde aurretiko ezagunak ez dira miatu behar eta horretarako aurre ideiak ezagutzeko jarduerak diseinatzea absurdoa da.
3. Ingurunearen ezaguera arlo zabala eta anitza da eta eragina du irakaskuntzan.
4. Ikasleak egiten dituen lanak-koadernoak, lan monografikoak, horma-irudiak,... aztertu ondoren ikaslearen aurrerakuntza eta oztopoak zeintzuk eta zein tamainakoak diren jakiteko modua izango du irakasleak.
5. Idatzizko frogak egintza eta kontzeptu batzuk bereganatu diren ala ez egiaztatzeke galdera erantzunak, aukera anitzeko frogak, erantzun bakarreko galde-sortak, entsegu frogak, laburpenak, sinopsi frogak, mapak, grafikoak,... eta abarrek ez dira inoiz erabili behar.
6. Prozedurazko edukiak ebaluatzeko behaketa sistematikoagoa, lan monografikoak, lan-idoiak, lan idatziak eta grafikoak, informazioaren antolakuntza eginez,... egin behar da.
7. Ebaluazioan espazioa eta denbora sendoki bereganatzen dituzten ala ez finkatu behar da.
8. Ebaluazio irizpideetan helburuak bete diren ala ez aipatzen da. Baita testuinguruen arteko transferentzia egiteko gai diren ala ez.
- 9.- Ebaluazio irizpide hainbat natur arloari dagozkio, hain zuzen denbora, espazioa eta natur arloari dagozkion espezifikotasunei buruz, adibidez Euskal Herriko izadiaren bilakaera (sekuentzia tenporala), kokagunea (espazioan), orientazioa (errepresentazio grafikoa),
10. Ebaluazio irizpideetan ikasketa espezifikoak aipatzerakoan inguruko bizidunen ezagunen garrantzia aipatzen da, ez materialak eta objektuak. Informazioaren espresioa ez da aipatzen; bai behaketa eta identifikazioa; energia era aparailuei buruz ez da ezer aipatzen baina giza gorputzaren bizitzarako ezinbesteko funtzioak betetzen dituzten organo nagusiak ezagutu eta kokatu bai; baita elikadura eta bere ingurukoa osasunarekin erlazioa duena; baliabide naturalak eta hauen erabilera; faktore fisikoak eta bizidunengan duten erlazioa konplexuegia da eta ez dela ebaluatu behar aipatzen da; problemen ebazpena eta erabakiak hartzea ere oso konplexua izateagatik D. B. H.-erako utzi behar da.

ARIKETA. Bereizi itzazue kontzeptuak direnak, prozedurak eta balioak. nahiko orokorrak dira. Bakoitza O.C.D.aren zein eduki blokean kokatuko zenuke?

1. Airea, ura, lurzorua aztertzeko esperientzien diseinua.
2. Airearen ezaugarriak.
3. Animalien behaketa eta identifikazioa.
4. Argiaren hedapena.
5. Eguraldia aztertzeko ditugun parametroen behaketa eta datuen antolakuntza.
6. Eguzki sisteman ditugun planetak, izarrak, sateliteak, asteroideak eta kometak.
7. Elikadura funtzioan aritzen diren organoak.
8. Elikadura orekatua izateko arauak.
9. Elikadura orekatuaren balioa.
10. Elikagaiak lortzeko erabiltzen ditugun animaliak eta landareak.
11. Gaur egun dugun ondare historiko artistikoa kontserbatzeko arauak eta berarekiko sentikortasuna.
12. Indarren eraginen azterketa.
13. Ingurunean ditugun elementuen analisia.
14. Ingurunean egon daitezkeen aldaketekiko jarrera kritikoa eta arduratsua.
15. Ingurunean animaliak.
16. Ingurunean elementuen behaketa, honen errepresentazioa eta deskripzioa.
17. Ingurunean harriak, hostoak,... eta abarrek laginak jasotzeko teknikak.
18. Ingurunean tresneria ezagutzeko jakin-mina.
19. Kontsultarako erabiltzen diren informazio iturrien zainketa eta erresponzabilitatea.
20. Kutsadura gutxiagotzeko jarrera kritikoa.
21. Lan praktikoak diseinatzerakoan jakin-mina.
22. Lan praktikoak garatzerakoan eta praktikara eramaterakoan jakin-mina eta parte hartzean berdintasuna.
23. Lurraren mugimenduak eguna eta gauarekin duten erlazioaren analisiarekin.
24. Lurzoruen eboluzioaren analisia.
25. Lurzoruen mapak (mapa edafologiakoak) interpretatzeko teknikak.
26. Luzera, denbora, masa neurtzeko tresnen erabilera.
27. Makinak: mugimenduaren hedatzaileak eta transformatzaileak.
28. Materialen berziklaia.
29. Materialen ezaugarriak aztertzeko propietateen analisia eta esperientzien diseinua.
30. Mineralen behaketa sistematikoekiko karreta kritikoa.
31. Objektuen fabrikaziorako erabiltzen ditugun materialak: egurra, metalak, papera, plastikoak eta harriak.
32. Objektuen zainketa.
33. Orientatzeko tekniken erabilera.
34. Ornodunen bereizketa.
35. Sustantzien transformazio kimikoak.
36. Uraren ezaugarriak.